



16 **BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK**



HELBURUA:


Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarekiko sarbidea erraztea eta erakunde eraginkorra eta inklusiboak sortzea maila guztietan.

16. GJH honetan bizikidetzaren, herritarren segurtasuna eta bakearekin lotutako alderdiak hobetzea da helburua, baita udalaren kontu ematea eta gardentasuna ere.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Bizikidetzaren eta segurtasuna
- Partaidetzaren, gardentasuna eta kontu ematea
- Elkartegintza

Garapen Jasangarrirako **16. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango dituen lankidetzaren eremu gehien:




ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Zarautzen indarrean dauden plan eta ekimenak kontuan hartuz, azken urtetan GJH ondorengo arloetan eragin da:

Bizikidetzaren eta segurtasuna

Bizikidetzaren eta segurtasuna dira gizartearen ongizatearen oinarrietako bat.

Zentzu honetan, Zarautzen erregistratutako delitu indizea **mila biztanleko 28,86 delituko** zifrara iritsi da 2020 urtean (Udalmap), balore hau Gipuzkoa (%29,51) eta EAEkoa (%33,92) baino baxuagoa delarik.



Iturria: Udalmap

Aipagarria da Zarautzen azken 5 urtetan ia 4 puntutan egin duela behera delituen indizeak, EAE eta Gipuzkoan baino maila nabariagoan. 2020an delitu indize baxuena eman delarik. Honela, EAE mailan Zarautz 146. postuan kokatzen da. 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak kontutan hartuz, 5 udalerri bakarrik dute delitu-indize baxuagoa: Amorebieta-Etxano (%16,69), Arrasate-Mondragon (%18,98), Getxo (%24,22), Durango (%24,91) eta Santurtzi (%26,59)

Delitu indizea altua ez izatearen arrazoietakoa bat Zarautzen dagoen udaltzaingo kopurua izan daiteke, izan ere, Zarautzen 1000 biztanleko 1,68 udaltzain daude 2020 urtean (Udalmap), EAE 15 udalerrri gehiagok bakarrik dutelarik udaltzaingo dotazio altuagoa. Horrez gain, Ertzaintzaren egoitza Zarautzen bertan izateak ere eragina dauka delituen indize baxu horretan.

Gaur egun Zarautzen delitu nagusienak bi dira: **Internet bidezko iruzurrak eta bizikleta lapurreak**.

- Internet bidezko iruzurren delituak azken urteetan arazo bilakatzen ari dira Euskal Herria osoan, horregatik, Zarauzko udaltzainen lan ildo berri bat honi bideratutako izango da.
- Bizikleten lapurreta ekiditeko eta kontrolatzeko sistema bat dago ezarrita 2011az geroztik, eta oso ongi funtzionatzen du. Zarauzko bizikletak erregistro baten bidez eta horri dagokion bizikletan jartzeko pegatina batzuen bidez daude kontrolatuta, eta gaur egun udaltzainetatik eramaten da. Zarauztarrek beraien bizikletak erregistratzeko kanpainak egitea ezinbestekoa da, izan ere, bizikleta berri asko egoten dira.

Aipatu beharra dago, Zarautz oso udalerrri desberdina dela uda eta neguan, batez ere dagoen jende kopuruagatik, baina hala ere, delitu indizeak ez dira asko aldatzen. Udan egon daitekeen arazo larrietakoa ibilgailu motordunen zirkulazioa eta hauek sor ditzaketen arazoak dira, batez ere aparkalekuei begirakoa.

Segurtasuna eta bereziki emakumeen segurtasuna bermatu nahian, 2013an Puntu beltzen mapa egin bazen ere, gaur egun mapa hori zaharkitua geratu da eta berau eguneratzeko beharra dago. Segurtasunarekin lotuta, aipatzekoa da baita ere gaueko taxi zerbitzua eskaintzen dela. Zerbitzua edozein pertsonak erabiltzera bideratua badago ere, emakumeen segurtasun eta ongizatean bereziki eragitea du helburu gisa baita ere.

Mugikortasun jasangarri eta seguru bat bermatze aldera **bide heziketa programa** eramaten da aurrera udaltzain sailetik. Programa honen helburuak ikasleek mugikortasun segururako gaitasunak lantzea da, autonomia eta arduratik, prebentzioa oinarri hartuz. Zarautzen dauden ikastetxe eta maila guztietan ematen dira adin bakoitzari egokitutako bide-heziketa saioak, partehartze dinamika desberdinen bidez (jolasak, dilemak, eztabaida, roll playing,...) eta ondoren, mugikortasuneko ingurune "errealen" aplikatuz.

Partaidetza, gardentasuna eta kontu ematea

Udalaren **antolaketa eta koordinazioa sustatu eta gardentasun** sendotzeko helburuarekin, 2015etik udal sailen arteko koordinazio hobetzeko antolaketa eredu berria jarri zen martxan, gaur egun mantentzen dena. Honela, lanerako 3 gune daude:

- Lurralde
- Antolaketa
- Herritarrak.

Egitura honek batetik, udal langileen parte hartzea, koordinazioa eta informazioa handitzea ekarri du eta bestetik, udal barruko antolaketa hobekuntza hauek herritarren parte hartzea sustatzea ahalbidetu du, izan ere, herriko eragile eta udalaren arteko harremanak estutzea lortu da, eta koordinazioa eta informazio elkartrukea hobetu da, batez ere arlo sozialeko gaitan.

Badira 13 urte udalean **partaidetza** saila sortu zela. Departamentua martxan jarri zenetik parte hartze prozesu ugari gauzatu dira udalerrian, udaleko web orrian atal espezifiko eta parte hartzeko bidea eskaintzen delarik baita ere, GFako egiturearekin bat eginez.

Partaidetza sustatzeko moduan eboluzioa eman da, departamentu gehienek partaidetza lan egiteko modu hori beraien egunerokoan txertatu baitute. Gaur egun, departamentu desberdinek beraien politikak gauzatzeko gaiarekin erlazioa duten eragileekin harreman zuzena mantentzen dute, eragileekin elkarlanean programa desberdinak eta eztabaida espazioak koordinatuz.

Hainbat departamentuk parte hartze mekanismo sektorialak martxan dituzte, batzuk modu egonkorrean eta beste batzuetan proiektu konkretuen inguruan sortzen direlarik parte hartze espazioak.

Gardentasun eta kontu emate arloan ere udalak aurrerapauso ugari eman ditu, herritarrek informazioa ezagutzeko eta eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko mekanismoak martxan jarri. Arlo honetan aipatzekoa da udaleko web orrian "Gardentasuna" deritzon atala dagoela, zeinetan herritarrek ondorengo arloetako informazioa kontsultatu dezaketen:


- **Udala eta udal gobernua:** zeinetan hautetsien inguruko informazioa eta udal sail, departamentu eta langileen inguruko informazioa jartzen den herritarren eskura.
- **Garrantzi juridikoa:** osoko bilkuretako aktak, plan eta programak, ordenantza eta erreglamenduak,...
- **Ekonomia, aurrekontua eta estatistika:** udalerriko estatistika eta bestelako dokumentuak jasotzen dituen
- **Herritarrekiko harremanak eta gardentasuna;** herritarren ekarpenak/iritziak jasotzeko postontzia eta Zarautzi buruzko datu irekiak jasotzen dituen atala.

Bestalde, eta gardentasun ariketa gisa, aurrekontu parte-hartzaileak sustatu dira 2011tik aurrera. Martxan jarri zirenetik, urteko herritarrek udal aurrekontuetan ekarpenak egiteko aukera dute, horretarako kanal desberdinak zabaltzen direlarik: aurrez-aurreko partaidetza saioak, udalerrian zehar banatutako postontziak, proposamenak egiteko helbide elektronikoa (partehartu@zarautz.eus) eta web orria.

Elkartegintza

Zarautz herri dinamikoa da, elkartegintza sare sendoa eta aktiboa duena. Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan 223 elkarte daude izen emanda Zarautzen (konpetizio kiroletako elkarteak kontutan hartu gabe).

Elkarteen gehiengoa elkarte kulturalak dira nabarmenki (%64), hemen sartzen direlarik ondorengo arloak sustatzea helburu dutenak: kultura, arte eszeniko eta plastikoak, kirol ez konpetitiboa, gastronomia eta aisialdia



Iturria: Elkarteen erregistroa

Hauetaz gain, kirol konpetitiboan aritzen diren elkarte ugari daude baita ere.

Elkartegintzaren oinarritzko izaera pertsonak bolondres gisa parte hartzen dutela kontuan hartuz, elkarteek pertsona asko mugitzen eta aktibatzen dute.

Udalak elkarteekin elkarlan mota desberdinak ditu, udaleko sail bakoitzak bere eremuan lan egiten duten elkarteekin harreman estua izan ohi duelarik:

- Ekimen eta proiektuak burutzeko hitzarmenak
- Diru-laguntza deialdi desberdinak egiten dira urtean zehar ekitaldi eta ekimen ugari gauzatzea helburu dutenak.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Zarauzko bizikletak erregistratzeko sistema:** Sistema honen bidez, bizikleten lapurretak saihesten dira. Udaletxean dagoen erregistro fitxa baten bidez eta honi lotutako bizikletan jartzen den pegatina baten bidez lapurtutako bizikletak berreskuratu daitezke. Sistema hau 2011tik dago martxan.
- **Bide heziketa,** zeinetan dinamika partehartzaileen bidez gaitasun berriak landu ondoren, mugikortasuneko ingurune “errealen” aplikatzen diren.
- **Web guneko gardentasun** atala, zeinetan herritarrek udaleko funtzionamendu eta kontuen inguruko informazio ugari kontsultatu dezaketen.
- **Parte hartzea** gaur gaurkoz ez da ekimen puntaletara bakarrik mugatzen, **lan egiteko era gisa txertatua** dago Zarauzko udalean.



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Zarautz bizitzeko herri atsegina, polita, lasaia, segurua eta eroso den herri gisa identifikatzen duten herritarrek, bizi kalitate oneko herri bezala. Herri izaera mantentzen duen herria dela nabarmendu da alderdi positibotzat. Hala ere, azken urtetan asko aldatzen ari da eta horrek kezka sortzen du baita ere.
- Herriaren dinamismoari dagokionez, iritzi kontrajarriak daude: herri bizitza eta dinamismoa galtzen ari denaren sentsazio aipatu bada ere, lotarako herri bihurtzen ari denaren irudipena, herri bizia eta dinamikoa izaten jarraitzen duela ere aipatu da (bai orokorrean eta baita auzoetan ere).
- Zarauzko elkartegintza-sarea handia bada ere, galtzen ari denaren eta elkarte hauen jarraipena bermatuko duten pertsonen errelebo faltaren inguruko kezka azaldu da. Hori dela eta, elkarteen arteko harremanak eta komunikazioa sustatzeko espazioak eskaintzea egokia litzatekeela aipatu da.
- Elkarteen beharrei erantzuteko nahikoa gaitasun eta baliabiderik/azpiegiturarik ez dagoela komentatu da.
- Bizikidetzarekin lotuta, gizarte-hezkuntza, besteeikiko enpatia,... galtzen ari direla azpimarratu da, balio zibikoetan atzera egiten ari dela.
- Gizartea aldatzen ari da, kontzientzia falta dagoela komentatu da eta horregatik garrantzitsua da talde lana sustatzea.. Herritarrak sujetu aktibo direla sinestea falta da, ahalduntzea, aldaketa eragin dezaketela konturatzea.
- Herritarrak eta herriko eragileak aintzat hartu beharko liratekeela uste dute herritarrek, entzute hutsetik haratago, elkarlana sustatuz. Nahiz eta parte hartzean eta entzutean aurrera pausuak eman diren, oraindik udalaren erabakietan herritarren partaidetza eta zeharkakotasuna txertatzeko asko falta dela aipatu da.
- Udalaren funtzionamenduari dagokionez, herritarrek orokorrean ez dute udala gertuko sentitzen eta erakundearekiko urruntasuna eta zurruntasuna aipatu da, oso burokratizatu dagoen erakundea dela. Beharrezkotzat jotzen da udala herritarrengana gerturatzea eta irekitzea.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

- Internet bidezko iruzurrak murrizteko lanketak egitea
- Udalerrian dauden bizikleta berrien erregistrarako kanpainak burutzea
- Udalerriko puntu beltzen mapa egin eta hauetan hobekuntza lanak egin, ziurtasuna bermatzeko
- Herritarren kontseilu edo kontseilu soziala sortu, udal kudeaketaren jarraipena eta ebaluaketa jarraia egingo duena.